ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko abuztuaren 7a, asteazkena • 90 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 30eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

— **Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 30ekoa. Onestea Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara.

— **Foru dekretuak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2019 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Onestea hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntza eta aurrerakinen araubidea, 2019ko maiatzaren 26an Batzar Nagusietarako egindako hauteskundeen emaitzen arabera.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2019 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Onestea 2018ko aurrekontu ekitaldia (2019rako luzatua) ixteko eragiketak eta ekitaldi horretako hondarren ordainketen arauketa.

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 498/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onespena ematea Isabel Martínez Díaz de Zugazúa andrea behin-behineko langile izendatzeari, aholkularitza bereziko zereginetarako.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 499/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea azaroaren 11ko 127/2015 Foru Aginduaren ofiziozko berrazterketa prozedurari hasiera ematea. Foru agindua alarguntasun pentsio bat onartzen zuen azaroaren 23ko 144/2015 Foru Aginduak aldatu zuen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 500/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Aldatzea Aldundiko informatika lanpostuaren kudeaketa integrala kontratatzeko deitutako prozedura irekiaren agiri teknikoen ezaugarrien taula eta V. eranskina, ekainaren 25eko 411/2019 Erabakiz onartua, akatsa baitago gehieneko lizitazio aurrekontuaren kalkuluan.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 501/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea lankidetza hitzarmen baten eredua onestea, kontzejuen, udalen, ureztatzaileen elkarteen eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak aipatzen dituen bestelako erakundeen kredituak eta eskubideak betearazte aldian biltzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Foru Gobernu Kontseiluaren 502/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onespena ematea Kontuhartzailetza eta Kontrol Zerbitzuaren eragozpen txostenaren gai izan den egindako jardun bat baliozkotzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 503/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onespena ematea Kontabilitate Zerbitzuaren gaitzespen txostenaren gai izan den egindako jardun bat baliozkotzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 504/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea, Lurralde Orekaren eta Ingurumen eta Hirigintza sailek eskatuta, 28/2019 konpromiso kredituaren transferentziaren espedientea (15.450,04 euro), "Mendialdeko ibilbide berdeko azpiegitura" izeneko partidarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 505/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eta Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskatuta, 93/2019 kreditu transferentziaren espedientea (10.039,09 euro), "Desjabetze hidraulikoak" partidarako, proiektu hidrauliko batek nahitaez okupatu beharreko azalera handitzeak eragindako gastuei aurre egiteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 506/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea luza dadila Gasteizko Elizbarrutiko Apaiztegiarekin egindako "Latindarren Pabilioia" izeneko higiezinaren mantentze lanen kontratua 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 507/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea 2018ko maiatzeko, ekaineko eta uztaileko ekaitzen ondorioz azpiegituretan kalteak izan dituzten zenbait toki erakunderi emandako zuzeneko laguntzen zati bat itzultzeko prozedura hastea.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 508/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea Arrasateko Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin "Iturbide Egoitzan" egoitza zerbitzua emateko izenpetutako lankidetza hitzarmena aldatu eta luzatzea.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 509/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea María Natividad López de Munain Alzola izendatzea Ingurumen eta Hirigintza zuzendari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 510/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren partaidetza bazkide gisa Wildlife Economy proiektuan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 511/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen instalazioetatik datozen hondakin ez arriskutsuen kudeaketa zerbitzuaren esleipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 512/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Inesco SAri esleitzea, prozedura ireki bidez, "Dulantziko ur biltegia eraitsi eta berria eraikitzeko proiektua" izenekoaren obrak, 774.400,00 euroko zenbatekoaz, BEZa barne, eta 6 hilabeteko egikaritze epearekin.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.07 05:30:08 Z